DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA, SAren URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-ZERBITZUEN KONTRATUKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea da Donostiako Musika Hamabostaldia SAren 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldietarako urteko kontuen ikuskaritza-zerbitzuak ematea. Bi aldiz urtebete gehiagorako luzatu ahal izango da (2029, 2030).

2. Eman beharreko zerbitzuaren edukia eta exekuzioa

Urteko kontuen ikuskaritza-zerbitzuek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte:

a) 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldiei dagozkien HAMABOSTALDIAren urteko kontuen ikuskaritzak egitea. Ikuskaritza horietan sartzen dira balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, sarreren eta gastuen egoera-orria eta ekitaldiari dagozkion memoriak. Modu laburtuan aurkeztuko dira.
b) 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldiei dagozkien HAMABOSTALDIAren urteko kontuen ikuskaritza-txostenak egitea.

Oro har, kontuak ikuskatzeko lanak gauzatzeko hiru hilabeteko gehieneko epea izango da, dagokion ekitaldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Edonola ere, ikuskaritza-txostenek eskuragarri egon beharko dute urteko kontuak merkataritza-legediak ezarritako epearen barruan onartu ahal izateko.

3. Urteko kontuen ikuskaritza

Urteko kontuen ikuskaritzan, kontu horiek HAMABOSTALDIAren finantza-egoeraren ondarearen, eragiketen emaitzaren eta aztertutako aldian lortutako eta aplikatutako baliabideen irudi fidela adierazten duten egiaztatu eta horri buruzko ebazpena emango da, Merkataritza Kodearekin eta aplikatu beharreko gainerako legedia kontuan hartuta; era berean, kudeaketa-txostena ekitaldiko urteko kontuekin bat datorrela ere egiaztatuko da.

4. Ikuskaritza-txostena

Urteko kontuen ikuskaritza-txostenak Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen 5. artikuluan aipatutako irismena eta edukia izango ditu.

5.- Erantzukizuna

Kontuen ikuskaritza-txostenak ikuskaritza egiten duen enpresa ikuskatzailearen erantzukizunpean egingo dira; enpresa horrek sinatuko ditu, eta ezarritako legezko preskripzioen eta Ikuskaritzako Arau Teknikoen mende geratuko da.

6.- Giza baliabideak eta baliabide teknikoak

Deskribatutako lana egiteko, kontratutik eratorritako obligazioak asetzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarri behar ditu enpresa esleipendunak. Horretarako, ikuskapenaren arduradun den bazkide bat eta laguntzaile bat izango dira lantaldean, gutxienez.

Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubideari lotuta dago, eta, beraz, euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza izango dira.

7.- Kontratua gauzatzea

Ikuskaritza-prozedurak aplikatzeko, honako jarduera hauek egin ahal izango dira:

• Ikuskatutako erakundearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioari zuzenean edo zeharka eragiten dioten dokumentu eta aurrekari guztiak aztertu.

• Ikuskaritza gauzatzeko beharrezko jotzen den informazio eta dokumentazio guztia eskatu.

• Ikuskatutako erakundearekin zerikusia duten hirugarrenei erakunde horrek egindako eragiketei buruzko informazioa eskatu.

• Informazio ekonomiko-finantzario eta kontabilitatekoari eusten dioten sistema informatikoen segurtasuna eta fidagarritasuna egiaztatu.

• Ikuskatutako erakundearen orotariko aktiboen egiaztapen materialak egin.

• Ondorioak oinarritzeko ebidentziak lortzeko beharrezko jotzen den beste edozein.

8.- Lanen konfidentzialtasuna

Esleipenduna behartuta egongo da bere jarduera gauzatzean ezagutzen duen informazio guztia isilpean gordetzera, eta ezingo du informazio hori erabili ikuskaritzaz bestelako helburuetarako. Betebehar horrek indarrean iraungo du esleipendunarentzat, baita baldintza-agiri honen xede den kontratua amaitu ondoren ere.